



## LELO KANTZOA.<sup>1</sup>

Lelo ill! Lelo  
Lelo ¡A Lelo!  
¡Lelo! ¡A!  
Lelo ill! Lelo!  
¡Lelo Zarak ill!  
Lelo! A!

(ANZIÑAKO EUSKALDUN KANTZOA.)

¿Zér gertatzen ote da Euskaldun lurrean?  
Jendea motel dabill minduren mendean!  
Aspaldi onetan  
kopet guzietan  
laño beltzak dabiltza.... negar begiyetan!

Ez da soñurik iñon, danzarikan ere ez;  
eztarriyak mutuak, far, algarak iges!  
Zerbait gertatzen da,  
eta piñua da  
orrela Kantabriya bildurtzen duana.

Neguko elur gañian badator ekaitza,  
laster datoz ujolak aitzetikan aitza,  
guzia urraturik,  
guzia eramanik,  
olatu beltz artian guzia ondaturik!

---

(1) Con especial gusto inauguramos el nuevo año dando principio al presente tomo con el primer trabajo escrito en bascuence por el eminente novelista guipuzcoano, nuestro respetable amigo D. Juan V. de Araquistain.

Orrela Eguzki aldetik datozen jendeak  
 dijoaz arrapatzen goyak eta beak!  
     Beti aurreratzen,  
     beti zabaldutzen,  
 bide mutur guziak berentzat artutzen!

Arrabiyaz ta lotsaz Kantabriyatarrak  
 Guda kantzoa jo ta joan dirade azkarrak.  
     ¡Joan!... ¿baña.... zertako?  
     Geyenak galtzeko,  
 Euskal bakoitzarenzat berreun diralako.

¡Gero, gaitz bat beñere ez dator bakarrik!  
 Beti dakar beste bat berekin atzetik!  
     Ori gertatzen da  
     orain ere.... bada  
 Lelok echea uzteko modurikan ez da  
 ¡Et' ez bildurragatik! Ezagutzen ez du!  
 Bakarrik, Erromarrak ikaratzen ditu!  
     Gogorra besua,  
     argiya burua,  
 aren atzetik beti garaya dijua.

Kantabroen Buru da, naiz izan gaztia,  
 amak aurra bezela guziak maitia:  
     Aitor anziñako  
     izantzan ezkerro,  
 ezta iñor mendiyetan izan maitiago!

Baña ¡jai! Lengo gudatik etorri zanian  
 Dola sartu zitzayon biotz biotzian!  
     Oso choraturik,  
     errayak urturik,  
 iñork atera ezindu Dolaren ondotik.

Alferrikan mutillak oroitzian nola  
 Lelorekin etsaya puskatzen zutela,  
     nai luteke ekarri  
     beren Agintari,  
 ta ala eskatzen diote beren aidiai.

Orregatik askotan bere Erritarrak  
bialdu dizkiote beren aide zarrak,  
erregu egiteko,  
andik irtetzeko  
Sorterriko Burutzat len-bait-len jartzeko.

Bañan ez du sinisten Erromar sarrera,  
gezurra dalaustedu beren esaera.  
Itz egin ezkero  
Dolachok, ez dago  
aide ta adiskiderik arentzat geiago.

¿Zein da baña Dola ori, orrela alduena  
ichutu Euskal-erriko bururik onena?  
Inorchok ez daki,  
ez nondik dan jaiki,  
ez aita ta amarikan ote dueneuki.

Askok ikusirikan nola choratzen dan  
Lelo bezelako bat orren besuetan,  
diote isillik,  
parte on ezetik  
sortua ote dan, Lelo galdutziagatik.

Bañan ez baldin bada gizonen umia  
edertasunagatik da maitagarria,  
ezta bada bizi,  
da denen iritzi,  
mirabe ederragorik duenik ikusi!

Olgar, Leloren aita Buru zegoela  
orain ogei bat urte pasarik bezela,  
irten zan eizera  
Aralarko aitzera  
goizian goiz, bakarrik zerbait billatzera.

Iru bat ordu bada dabillega alferrik,  
ezerchoro basoan ezin somaturik,  
baña bat-batian,  
belartza batian  
basauntz zurizka eder bat jarri da bidian.

Bereala tira du dardara zorrotza,  
josi dio beregaz erditik biotza,  
    bañan orregatik  
    artian bizirik,  
charan sartu da ayara triste bat botarik.

Bait' ere bere atzetik Olgar segiruan  
ikasiyaz bidia odol arrastuan,  
    eta chara atzian,  
    sasiyen artian,  
koba bat arkitu du aitz baten azpian.

Sartu da Olgar, kenduaz sasiya ta abarra,  
entzunik arrituta aur baten negarra;  
    eta an bar-barruan,  
    belarcho moltsuan  
aur bat dago basauntzillaren onduan.

Oitua edaten aurra basaunz-errapetik  
oraiñ ere nai luke esnea goserik;  
    bañan ill ta oztuta,  
    titiya agortuta,  
alferrik eskatzen du negarrez aituta.

Olgarri errukiyaz urturik biotza,  
madarikatzen dago atzkona zorrotza,  
    eta ez pensatua  
    basaunz gaišua  
zala ume-zurtz orrentzat ama-ordekua.

Arturik aur gaišoa bere besuetan  
onela esaten dio erdi negarretan:  
    Nere aurcho ederra,  
    egin det okerra,  
baña kendu badizut basauntzan ama bat,  
ni izango naiz aita bat aurrera zuretzat.

Kolkuan beroturik eraman du echera  
bere seme bakarra Leloren aldera.  
    Eta arekin nasi  
    aurchoa da azi,

Olgar Euskal-goyaren alaba bezela,  
echeko baten eran maitatzen duela.

Lelo zan zarragoa zerbait Dola baño;  
artu du arrebachotzat, eta arrazkero  
bizi izan dira  
alkarri begira,  
bi choricho maitiak kabiyan bezela.

Lelok ogei ostoaldi zituan orduan  
joan zan gudara urruti bestien moduan  
eta aïñ agiriak,  
et' izugarriak  
izan ziran guda artan bere azañ aundiak,  
Olgar illa zanian, Euskaldun guziak  
alcharik lenbaitlen  
aidera ezkutuen,  
Kantabriya guztiko Buru jarri zuten.

Guda ederki amaiturik echera danian,  
gazte ta zar guzien laztanen artian;  
arkitu du Dola  
eziñ esan nola,  
parerik mendiyetan iñor ez dagola.

Arima ta biotza, buru ta zentzuak  
edertasun arrekin ¡ai! ditu galduak,  
eta ezkondurik  
al-bai ta lasterrik  
bere biotz ondoko maite Dolarekin  
mendiko eche batera joan da berarekin.

JUAN V. DE ARAQUISTAIN.

*(Aurrandetuko da).*



## LELO KANTZOA.<sup>1</sup>

Lelo ill! Lelo  
 Lelo ¡A Lelo!  
 ¡Lelo! ¡A!  
 Lelo ill! Lelo!  
 ¡Lelo Zarak ill!  
 Lelo! A!

(ANZIÑAKO EUSKALDUN KANTZOA.)

(AURRANDEA.)

Andik gichi batera berriz Erromarrak  
 datoz ekarririkan suak eta garrak.

Kantabroak bero,  
 an dira egunero,  
 erbesteko gizonak andik botatzeko.

Bañan etsayak asko, Kantabroak guchi,  
 beti berontz gureak, ta ayek gorontz beti.

Bururikan ere ez,  
 bakoitza bere aldez,  
 agintzeko guziak, egiteko iñor ez.

Gauzak gaizki dijoaz, et' ala ikustean  
 aserrea sartu da mutillen artean,

ikusirik nola  
 ordutik ordura,  
 atzerontz datozela changurru modura.

(1) Véase pág. 1.<sup>a</sup>

¡Lelo! eskatzen dute, Lelo datorrela,  
ichasoraño goaz igesi bestela;  
¡ai! orren agintzen,  
ez giñan ibiltzen  
indarrak modubage alferrik amiltzen.

Guziok bat egin ta segirik Lelori,  
etzan sartuko orrela Erromar motz ori,  
leku guztietan,  
barruko estalpetan,  
sekula iñor etorri eztan lekuetan.

¡Datorrela, bai, Lelo! Etortzen ez bada,  
betiko Euskal-erria arras galdua da.  
Orren zai gaude gu,  
bañan nai ez badu,  
laster gera guziok echerontz biurtu.

Mutillen itz char oyek echetan jakiñik,  
joan dira Lelogana berriz erregurik,  
bañan ikusirik  
dabiltzala alferrik,  
etorri dira atzera guziak tristerik.

Pensatu dute orduan, Lelo dan bezela  
Euskaldun on leyala, entzungo duela  
Ama-lur negarra  
eta lege zarra,  
biltzen bada Lauburu guziko Batzarra.

Ala, bost mendiyetan irrintzak jó dira;  
Aritzpian gizonak biribildu dira,  
eta beroz bero,  
amar agurezko  
bial dituzte laster Lelori esateko....

«Ama-lurra dagola bere biarran,  
»et' agindu duela bere Batzarrian,

»Lelori berela  
 »emateko ordena  
 »Lauburu zarrarekin joateko gudará!»

Batzarrearen orde z ogei zar joan dira,  
 ordenak ematera Lelori mendira.  
 Eta billaturik,  
 zarrenak bertatik  
 onela esaten dio, malkuak kendurik.

¡Lelo! Olgarren seme, Euskaldun Burua,  
 Euskal-umeen artean geien maitatua,  
 Erritar jendea,  
 minduraz betea,  
 zure biarrean da! ¡Mugitu zaitea!

—¿Zertako biar naute?... Lagunen artian,  
 badira abillaguak gudaz agintian!  
 Nik badaukat emen,  
 zergatik ez irten!  
 Gañera, Erromar gauzik ez det nik sinisten.

—¡Sinistazazu bada! Bere denboretan  
 ez da egon Kantabriya onen azkenetan.  
 Guziok negarrez,  
 onontz datoz iges,  
 muga guzietatik Erromar bildurrez!

¡Mutillak aulatuta!... ayaraz andreak,  
 Euskal-erriko Zárrak jo dituzte deyak,  
 Batzarra biltzeko.  
 ¡Bildu da, ta gero,  
 agindu digu guri zugana etortzeko!

Emen gera, arturik Lauburu santua,  
 Aitorri Zerutikan etorritakua;  
 leku segururik  
 iñon ez egonik,



zuri ematen dizugu, gordetzeko pozik.

«Artu bada! ¡Ez da izan sekula gizonik,  
 »gaur zuk bezelako ondra merezi duenik.  
     »Bere naigabian,  
     »Euskaldun-errian,  
 »guzia utzi da zure leyaltasunian!»

Begiyak malkoturik... pil-pillik bularra,  
 Lelok eskuan artzen du Lauburu zarra,  
     eta alchaturik,  
     buruaz gañetik,  
 onela esaten die chapela kendurik...

Kantabriya-mendiko Lauburu maitia,  
 bere semientzako zerutik jachia!  
     ¡Ondo zaude emen!  
     ¡Zu galdu baño len,  
 eun bizi banituke galduko nituke eun!

¡Ill, edo garaitu! da, Kantabroen esana!  
 Goazen! Goazen, guziok Erromarragana.  
     ¡Ill edo garaitu!  
     ¡Erroma! Zu ... edo gu!  
 ¡Edo gu danak illak! ¡edo zu zatitu!

JUAN V. DE ARAQUISTAIN.

*(Aurrandetuko da.)*



LELO KANTZOA.<sup>1</sup>

Lelo ill! Lelo  
 Lelo ¡A Lelo!  
 ¡Lelo! ¡A!  
 Lelo ill! Lelo!  
 ¡Lelo Zarak ill!  
 Lelo! A!

(ANZIÑAKO EUSKALDUN KANTZOA.)

(AURRANDEA.)

Kantabroak poz dira  
 baña... ¿zeñek esan  
 Dolaren naigabea  
 egun illun artan?  
 Leloren buru ederra  
 arturik besuan,  
 negarrez urtutzen da  
 miñezko ichasuan!

Despeitu dira eun bider...  
 eun bider alkartu,  
 negar eta laztanez  
 eziñik aspertu.  
 «—Lelo! Guda orretatik  
 »biltzen bazera zu...  
 »illikan lur azpian  
 »arkituko nazu!—

Orrela agertzen dio  
 naigabe zorrotza,  
 puskatutzen diola  
 Lelori biotza.  
 ¿Zenbat nayago luke  
 Lelok eriotza....  
 orrela ikusi baño  
 biotzeko poza?

Bañan goi guzietan  
 piztu dira suak!  
 Jo dira mendiyetan  
 irrinz gudakuak!  
 Lelok garbiturikan  
 išillik malkuak,  
 utzi ditu Dolaren  
 beso maitatuak!

(1) Véase pág. 1.<sup>a</sup>

Joan da, ta jarririkan  
Kantabroen Buru,  
biotz epel guziak  
beroz bete ditu.  
Beti aurrean dala,  
erori, ta alchatu  
burruka gabe egun bat  
akabatzen ez du.

Iru urte modu onetan  
itzuliyak dira,  
Erromatar aldera  
goiz ta arrats begira.  
¡Ai! Amaika seme eder  
eroriyak dira,  
azkenengo oroipenak  
emanaz mendira!

Erroma aldean ere...  
¡Zenbat ama gaiño  
bere seme maitiak  
gabe, triste dago!  
Zenbat ezkongai gaztek  
egitendute lo,  
irudipen gozuaz  
maitia ill ezkerol!

Burrukan egunez ta  
burrukan gabian,  
gelditubage, beti  
oñaren gañian;  
beti goronz dijuaz  
guziok batian,  
eramanaz etsayak  
zatituta aurrian.

Nekezcho bada ere  
Euskaldun azkarrak  
menditik bota ditu  
betiko Erromarrak.  
Pozez zoraturikan  
Kantabro-erritarrak  
danzaz ta kantaz daude  
gazte eta zarrak!

Euskal-erriko mukan ....  
¡Zer egun gozua!  
Lelok Lauburu zarraz  
goiturik eskua,  
eta adoraturik  
bere Jaungoikoa  
lau aizetara bota  
du garai-kantzoa.

«Erromatar gizonak  
»bazuazte igesi!  
»¡Asko ziñaten ononz...  
»orronz guztiz gichi!  
»Jende aundien pozaz  
»ziñaten etorri,  
»usterik Kantabroak  
»ondaturik utzi!

»Ez aztu, ez beñere,  
»Euskal errirako  
»gauza bat bera dala  
»naiz guchi, naiz asko.  
»Bat bizi dan artian,  
»ezta emen faltako  
»dardara zeñek bota  
»mugak gordetzeko!

»Lur au Aitor zanari »emanzion Jaunak; »beste jaberik ez du »baizik Kantabroak! »Burniya mendipean... »gañean besoak... »beti libre izateko »Euskaldun-basoak!	}	»Ala da oraiñ artian, »eta ala izango da, »gure jatorri-odola »ukatzen ez bada! »Erniyo mendiya aña »emen biziko da »gure jabetasuna, »Kantabrorik bada!
---	---	---

»Oraiñ anai maitiak,  
 »pake gozoarekin  
 »guazen gure ehetara  
 »Lauburuarekin.  
 »Ondo konplitu degu  
 »lege zarrarekin;  
 »goazen jostatutzera  
 »ehetar danakin!»

JUAN V. DE ARAQUISTAIN.

(Aurrandetuko da).

LELO KANTZOA.<sup>1</sup>

Lelo ill! Lelo  
 Lelo ¡A Lelo!  
 ¡Lelo! ¡A!  
 Lelo ill! Lelo!  
 ¡Lelo Zarak ill!  
 Lelo! A!

(ANZIÑAKO EUSKALDUN KANTZOA.)

(AURRANDEA.)

Kantabroak badijoaz  
 mendirik mendirik,  
 alariyoz, pozkariyoz  
 bazterrak beterik;  
 Gizon, andra, zar, gazteak  
 mordoska aundiyetan  
 beren billa datoz pozik  
 alde guzietan.  
 Jan, edana, zantzo, danza  
 laztan gogozkuak  
 arkitzen ditu bidian  
 mutill maitatuak.  
 ¡A! ¡Zér poz zoragarria  
 Kantabri guzian,  
 etsai gabe, jabetuta  
 guziya ikustian!  
 «¿Baña non da gure Lelo,

»Lelo maitatua,  
 »Euskaldunen Agintari  
 »alai ta prestua?  
 »¡Datorrela sort-lurraren  
 »libratzalle aundiya!  
 »ezagutu nai genduke  
 »gure ongariya!—  
 Jendeak ala esatendu  
 irtenik bidera,  
 bere mutill maitatuak  
 ta Lelo ikustera.  
 Bañan Leloric, ez dago  
 Guzien isillik  
 joan da Dolaren ondora  
 gogoaz urturik.  
 ¿Nora zoaz, Lelo, nora  
 presaka orrela?

(2) Véase pág. 1.<sup>a</sup>

¡Zerua gaur beltza dago  
 leizea bezela!  
 ¿Ez al-zaizu allegatu  
 zure lur aldetik,  
 laño lardaska gañian  
 Dolaren konturik?  
 ¡Ai Lelochol! gizon eder  
 guzien maiteena!...  
 ¿Zergatikan da munduan  
 beti gaizki onena?  
 ¿Zergatikan orren leyal  
 biotz aundi ori,  
 osorik eman diozu  
 ume choro bati?  
 Azkenengo illargiyan,  
 festako gabian,  
 odolezko zirrindara  
 zeukan arpegian!  
 Eguzkiya irten zan ¡ai!  
 burua bildurik  
 su ta garrez, aguriak  
 bildurrez beterik!  
 ¿Nora zoaz, Lelo, nora  
 asnasa estututa?  
 ¡Geldi zaitez! ¡Ai! goizegi  
 echerako zera!  
 ¡Anziñako esaera  
 egiya da sarri...  
 «andria ta ichasoa  
 beti bildurgarri!» »  
 ¿Zeiñ da goyan aitzian  
 iñillik,  
 jarrita dagon ori,  
 tristerik  
 kopeta eskutartian  
 jarririk?  
 Biotzeko odoletik

sortua,  
 irten zayo begira  
 malkua,  
 eta beatz artetik  
 diju!a!  
 Naiz ez egon mendian  
 orain otz,  
 korputzak naigabien  
 pasioz,  
 dar-dar egiten dio  
 eriotz.  
 Orla denbora askuan  
 egon da,  
 negarra mara-mara  
 dariola.  
 Baña jaiki da, zerbait  
 aitu ta.  
 ¡A zer mutill ederra  
 zan Lelo,  
 echera etorri baño  
 lenago!  
 Baña ¡ai! orain galduri-  
 kan dago.  
 Arrabiyaz errerik  
 ta lotsa,  
 bere buruari au  
 diotsa,  
 ezin mendenturik  
 biotza...  
 ¿Negarrez zaude gizon  
 dollorra?  
 ¿Zu zera arako Lelo  
 gogorra,  
 Kantabroen chimista  
 malkorra?  
 «¿Menditarren Burua  
 »zera zu?  
 »eta negarrez zaude?

»¡kenzazu  
 «aizkora ori gerritik,  
 »ta ar-zazu  
 »emakume-goro bat  
 «iñillik,  
 »ez emateko iñori  
 »lotsarik!  
 Ala dio kendurik  
 malkoa  
 begiyetatik.... baña  
 beroa  
 biotza kiskaltzera  
 dijoa!  
 Naiz Erromar burniyak  
 zorrotzak,  
 puskatzen ditu zure  
 biotzak,  
 eta ume kaskar baten  
 oroitzak  
 ¡ai Lelo! jartzen zaitu  
 orrela,  
 ontzi bat ichasoan  
 bezela,  
 galdurikan arraunak  
 ta bela!  
  
 Mendigañian Lelo  
 dagon bitartian  
 Dolaren oroipenaz  
 bere biotzian,  
 ezin iñildurikan  
 alegin guzian....  
 Dola ta Zara daude  
 izketan aopian.  
 —Triste zaude Dolacho—  
 —Triste ta bildurrez;  
 aspaldiko gabetan  
 egiten det amets

eskuak dauzkatela  
 zikinduta odolez!  
 Baña au da izugarriya!  
 Baldin ta negarrez  
 garbitu nai badituz  
 nere odol-tantuak,  
 aitzendet ayara bat  
 esanaz...=¡Gaiztuak!  
 odol orrek itorik  
 biyoren asmoak,  
 erbestera daramatz  
 zuen arrastoak!=  
 —Ipuiyak dira ametsak  
 lañoa bezela!—  
 —Bañan zerbait badabill  
 bildurtzen nauena!  
 Lelok, etorri ezker  
 gudatik echera  
 begiratutzen ez dit...  
 ¡ai! ¿zergatik?  
 Ez da  
 iñor gure kontua  
 emen dakiyenik.  
 Bestek ez du jakingo  
 baña orrek badaki  
 zerbait... zergatik dagon  
 illun eta iñillik  
 ¡Ai! Asmo gaiztorenbat  
 barrenen dabillki.—  
 —¿Zer asmo?  
 —¿Ez aldakizu  
 zein dan gure Lelo?  
 Bere ama illko luke  
 ondra garbitzeko!  
 Errezelo charrenbat  
 sartutzen bazayo,  
 bi bider eguzkia  
 ez degu ikusiko!—

—¿Zu ill? ¿Zu ill? ¡Ez Dola!  
 Zu ikutu baño len,  
 aizkoraz zatituta  
 utziko det emen!—  
 —¡Zara! Jaunkoagatik  
 senarra det arren!—  
 —Norbait ill bear bada  
 dijoala lenen!—  
 —¡Zara! ¿Zér egin degu?—  
 —¿Damutu al-zerá?  
 —¡Ez, ez! Len bezelašen  
 Dola zurea da!  
 bañan errukitzen nau  
 gizon orrek.—  
       —¿Nola?  
 ¿eta ez nazu ni erruki?  
 ¿Zuria ez da Zara?  
 ¡Nere Dola maitea,  
 gauza garratz dago  
 ala zer egingo dan  
 begira zazu ondo!  
 Ez da beste biderik  
 ark jakin ezkerok,  
 edo Dola ta Zara....  
 edo aurretik Lelo!—  
 —¡Ai! Zugatik ez balitz  
 naiago nuke, nik  
 guizon orren lekuan  
 emenchen ill!  
       —¿Ta nik?  
 —Zuregatikan bada  
 nago ni bizirik!  
 —¡Dola! Bat da Lelo, ta  
 gu biyok gera bi!  
 Oparik ez daukagu.—  
 —¡Nere Jaungoikua!  
 ¿Ill Lelo? Kantabroen  
 Buru maitatua?

¿Naikoa ez alda oraindik  
 nere traiziuu?—  
 —Ondo da! Ainbesteraño,  
 badezusartua,  
 biotz-barruan orren  
 oroipen maitia,  
 laster emango dizut  
 berekin pakia.  
 Bigar, irten orduko  
 goyan eguzkia,  
 utziko det betiko  
 Euskaldun-erria.—  
 —¡Zara! ¿Zér diozu?  
                               —¡Bai!  
 Ikusten det ondo,  
 ura maite dezula  
 ni baño geiago  
 Bizi bada berekin,  
 Ez dezu esango.  
 nik galdudizudala  
 biotzeko Lelo!  
 Agur—  
                               Zara maitea,  
 zaude, zaude emen,  
 nere errai-barruan  
 zu, zu, zera lenen!  
 Zu bage bizi baño,  
 naiago det eten  
 biotz ondoko zaña,  
 iltzeko lenbaitlen!—  
 —¡Dola, nere kutuna!  
 maitatu gaitian,  
 ikutu bage Lelo  
 al-degun artian.  
 Baña somatzen badet  
 asmoren batian  
 zu galtzeko.... ¡ai! orduan,  
 an naiz ni gañian!—



<p>—AgurZara!  —Dolacho,  aldean naukazu;  berri charren bat bada  siña badakizu;</p>	<p>} kukuaren soñua  bi bider jo zazu,  laster beeko basotik  eranzungo zaizu.</p>
---	--

JUAN V. DE ARAQUISTAIN.

(Aurrandetuko da.)

---

## APUNTES BIOGRAFICOS

REFERENTES

### A D. ANTONIO NAVARRO DE LARRATEGUI

AUTOR DEL «EPÍTOME DE LOS SEÑORES DE VIZCAYA.»



Pocos son, desgraciadamente, los escritores que se han dedicado á investigar y referir los acontecimientos históricos del país euskaro, motivo más para que este, y singularmente Bizcaya, deba reconocimiento á quien, como el autor cuyo nombre aparece al frente de estas líneas, empleó, segun él mismo nos dice, el poco tiempo que le dejaban libre sus ocupaciones «en recopilar la sucesion de los señores »de ella, que en las historias están tan esparcidos, debiendo poco á »los auctores que cosas tan grandes como ellos y la nacion Vizcaina »hicieron en defensa de la fée contra moros, y de la corona Real y »hazen cada dia: no las hubiesen ilustrado y alargado en ellas más.»

Creemos, pues, que nuestros lectores verán con gusto algunas noticias acerca del autor del *Epítome de los señores de Vizcaya*; obra muy apreciada hoy por los bibliófilos, ya sea por su mérito histórico ó ya por la escasez de ejemplares de las dos ediciones que de ella se conocen.

Nació D. Antonio Navarro de Larrategui por el año de 1554 en

## LELO KANTZOA.<sup>1</sup>



Lelo ill! Lelo  
 Lelo ¡A Lelo!  
 ¡Lelo! ¡A!  
 Lelo ill! Lelo!  
 ¡Lelo Zarak ill!  
 Lelo! A!

(ANZIÑAKO EUSKALDUN KANTZOA.)

(AURRANDEA.)

Denbora badijoa,  
 Lelok bere penaz  
 ez du begirik ichi  
 ez gau ta ez egunaz.  
 Ezin zutik egonik  
 atsekabepian,  
 arbolape batian  
 etzin da itzalian!  
 Loak artu du laster  
 ¡ai! gizagajoa.  
 Lo charra, baña azkenik  
 arentzat gozoa,  
 bada lotan aditzen  
 ez du nola esnarik  
 barrengo ekaitz beltzaren  
 odol-olaturik.

Menditikan jachita  
 oin chikiyen puntan  
 ondora etorri zayo  
 besterikan ez dan  
 moduko emakume bat;  
 eman dio laztan  
 luze bat.... eta gero  
 esan du kantetan:

«Lelo, nere maite maitatua!  
 »ara nere maitearen kantua,  
 »zure biotzera datorrela  
 »intza lora gañera bezela.  
 »Lañoren bat nerekin badezu,  
 »galdua bazera neretzat zu,

(1) Véase pág. 1.<sup>a</sup>

»Lelo maitia, etzaite esnatu, ez!  
»ill gaiten biyok emen negarrez!

»Diote Dola ederra chit dala,  
»diote zerukoizar bat dala;  
»¡ai! balitzake Maitagarriya,  
»emateko Lelori biziya!

»Entzun zazu Dolaren negarra,  
»bota burutikan asmo charra...  
»nere besora atoz len baño len

»berriz amoriyoz urtu gaiten!

»Eta galdu banaiz zuretzako...  
»Zu gabe beti onela izateko...  
»or dezu aizkora albuana.. artzazu,  
»jo ta betiko emendik ken nazu!

Isildu da Dola,  
Esnatu da Lelo,  
ikusi du... ta orla  
alcha ta esan dio:

—Zurea zan kantzoa nik entzun detana?

—Nerea zan—

—¿Ez dezu gaur ikusi Erniyo?

¡Odolezko lañoa guztitik dariyo!  
¿Ez dezu lora ederren usaya baño len,  
odol usai garratza somatu zuk emen?

—¡Ai!—

—Dola, odol-odeyak dabilta gañian,  
odol usaya bean, odola guzian!  
Gaur ez da amoriyozko egun gozoa, ez,  
gaur iltzelko eguna da! ... ¡Bai! prestatu zaitez.

—¡Lelo senar maitia!—

—Jan zazu itz ori!

Zure senarra joan zan! Aditu Lelori.  
Begirazazu orain aritz-adarrera,  
eguzkitan egiten duen itzalera,  
zergatik itzal orrek ikutu baño len,  
zu zauden leku ori .. illko da bat emen!  
—Ai Lelo! Erruki zaitez! ¡Lelo maitatua!  
¿zergatik neretzako oraiñ gorrotua?  
Ni lengo Dolacho naiz!—

—Isildu zaitea!

eta nola nai detan guzia argitzea  
entzun zazkitzu itz batzuk. Amar egun dira  
Kantabroak zirala biurtu mendira!  
zatituta Erromárrak guzian botarik

gure atzkonen aurrean Euskaldun mugatik.  
 Garai kantzoa esan-ta, iñorcho baño len  
 irten nintzan bakarrik, gogoaz len bait len  
 nere beso artian laztanez jateko  
 maite nuen ume bat biotzetik! —

—¡Lelo!


—Isilik! Gogoaren pasioz lasterka.  
 etorri nintzan iñork ezer etzekiela.  
 ¡Gaba zan! Sartu nintzan echian isillik,  
 illargia zeguan guztian argirik! ....  
 Ez det... ez det esan nai zer ikusi nuan  
 zorigaitzeko gau beltz izugarri artan.  
 Bakarrik, esango det penak zoraturik,  
 uste nuela ill bear nuela bertatik,  
 eta ala nindutenak penatu zirala:  
 bat, zu, Dola; bestea, dollorkume Zara.

Dollorkumeren itza Lelok esatian  
 sasiya mugitu zan beraren atzian  
 eta onela digo koleran norbaitek....  
 —¿Zara dollorkumia? ¡Lelo! gezurra dek—  
 Itzali zan orduko itz zakar gazia  
 chistuz azkona batek ebaki du aizia,  
 eta burni billauak jorikan biotza,  
 zuzen eraman dio norbaiti eriotza!  
 Ayara bat aitu da... gero lur gañera  
 gorputz bat odoletan bilduta erori ¡a!

JUAN V. DE ARAQUISTAIN.

(Aurrandetuko da.)



LELO KANTZOA.<sup>1</sup>

Lelo ill! Lelo  
 Lelo ¡A Lelo!  
 ¡Lelo! ¡A!  
 Lelo ill! Lelo!  
 ¡Lelo Zarak ill!  
 Lelo! A!

(ANZIÑAKO EUSKALDUN KANTZOA.)

(AURRANDEA.)

Leloren atariyan  
 au gertatutzian,  
 an beko zelayan  
 biltzen ari ziran  
 gizon ta emakume,  
 ezkon ta ezkongayak,  
 naiz aundi, naiz ume,  
 naiz gazte, naiz zarrak.  
 Kantabri guztitik  
 bilduta emateko,  
 denen izenetik  
 esker ta eskupeko  
 Lelo maitiari,  
 Lelo aundiari,  
 Lelo, Kantabriyako salbatzalleari.

Lenengo zijoazen

eun ume polit,  
 danak ostozko uztayak  
 eskuan alcharik.  
 Gero eun neska gazte  
 guztiak eldurik,  
 zuriz ondo jantziyak,  
 ta lorez beterik.  
 Atzetik guda-mutill  
 Leloren lagunak,  
 bost urteko eguzkiyak  
 beztuta kopetak,  
 azkonak eskuan, ta  
 gerriyan aizkorak  
 Erromar-odolakin  
 gorritutakuak.

Gero datoz tristerik

(1) Véase pág. 1.<sup>a</sup>

mestidura beltzez  
emakume pilla bat  
geyenak negarrez!  
Dirade andra ta alabak,  
geldituak lenez  
umezurz eta alargun  
gizonak galduez.

Eta ayen atzetik  
buru zuriyakin  
Kantabriko agureak  
Lauburuarekin.  
Badira eun urtekoak,  
diruditelarik,  
Aitor aita etorriya  
eguzkiko aldetik.

Azkenian zetorren  
mundu bat osua,  
dirudi zurru-murru  
ichaso olatua.  
Dantzaz, kantaz, kurriskaz  
betiaz zerua,  
eta moltso guzia  
Lelorunz dijua.

Atarira urbiltzean  
neskach gazteen soka,  
geldituta, isiltzeko  
aditzera eman da.  
Eta ongi ikasirikan  
lenagotik lana,  
kanta bat kanta dute  
esaten duana:

«Kantabriyako  
»Agintariya!  
»Euskal-errik

»salbagarriya!  
»Lelo aundiya  
»atoz... atoz... atoz!

»Lauburutako  
»bazter guztitik,  
»zar eta gazte,  
»neska mutillik,  
»zu gana pozez  
»datoz... datoz... datoz!

»Leloren festa  
»da Kantabriyan,  
»kantzo ta danza  
»alde guziyan  
»Euskal-erriyan  
»bero... bero... bero!

»Mendi guziak  
»beterik daude,  
»zure erritarrak  
»zure zai daude,  
»agertu zaite  
»Lelo! Lelo! Lelo!»

Alferrikan Lelori  
diote ots-egiten;  
echetik ez da inor  
atarira irtetzen.  
Arrituta jendea  
isillikan dago,  
bada gauza zuzenik  
inork ez du espero.

Onetan kurriska bat  
echeburu aldetik  
irten da.... ta negarrak  
kurriskan atzetik!

Ara joan ta, guziok  
minduraz beterik,  
Lelo billatu dute  
azkonaz josirik!

Bizi da oraindik, baña  
azkeneko asnasan,  
aopian esaten du...  
«¡Zara dollorra zan!  
»Traizioz jo nau... baña  
»iñork ez beza esan  
»Dola nere maitia  
»zegoala orretan!»

Itz oekin utzi dio  
betiko biziya,  
amorruez ta naigabez  
beterik guziya.  
Aitzak puskatzen ditu  
ango karrasiya,  
malkuak errerikan  
guzien begiya!

Onetan baso ondolik  
deadar artian,  
eun bat Leloren lagun  
armadun artian,  
Zara ta Dola datoz  
bildurrez erdian,  
arrapatuak biyak  
igesi mendian.

Gorrotiaz jendeak  
atzeman nai ditu  
bertan illtzeko... esanaz  
¡su-eman! ill! urkatu!  
Gordetzalleen buruak  
anparatzen ditu

esanaz... «Ez! Batzarrek  
»biarra egingo du!»

Lelo-atariyan dira.  
Agure zarrenak  
ots egin du—¡Batzarra!—  
Bildu dira danak,  
Zarak aitortu die  
ill duala berak,  
eta ekin diote  
gizonen esanak.

Zara illuna dago,  
Dola guztiz lotsa,  
jendia isill... aitzenda  
asnasaren otsa,  
—Eriotza! esan dute  
zarrak!— ¡Eriotza!  
gaztiak,—eta goronz  
dijoa ill otsa.

Onetan Batzarreko  
Buruzari zarrak  
alchatuta, ala dio:  
«¡Euskal-Batzartarrak!  
»Eun bider ta geiago,  
»atariko inchaurreak  
»ni jayo nintzanetik  
»bota ditu adarrak.

»Gauz asko ikusi ditut,  
»gauz asko ere ikasi,  
»da esatea, naizela  
»denbora asko bizi;  
»baña gaur bezelako  
»egintza ichusirik,  
»ez ni, ez iñor dago  
»ikusi duenik.

»Orgatik nai dezute  
 »bertatik ill Zara!  
 Orgatik nai dezute  
 »orren bizi charra!  
 »Baña... ¿Zér da bizi bat?  
 »¿Eun bizi zer dira?  
 »ordaintzeko gaur gure  
 »lotsa ta negarra?  
 »Gizon *baten* galera  
 »*batek* pagatzen du,  
 »Baña Lelo etzan *bat*,  
 »zan guzien buru,  
 »guziok au galtzian  
 zerbait galdu degu!  
 »Zarak ori jotzian  
 »Ama-lurra jo du.

»Dolaren egiteak  
 »ez du emen lengorik!  
 »Ez da emen ezagutzen  
 »orrelako lotsik!  
 »Euskeraz falsiya orrek  
 »Ez dauka izenik,  
 »ez ta lege zarrían  
 »bere kastigurik!  
  
 »¿Ez badu gauza orrek  
 »lekurik legían,  
 »ez badu, bada izenik,  
 »Euskera zarrían...  
 »berriya izanik gaitza  
 »Euskaldun érrían  
 »kastigu berríren bat  
 »biar du gañían!»

JUAN V. DE ARAQUISTAIN.

(*Bukatuko da.*)





LELO KANTZOA.<sup>1</sup>

Lelo ill! Lelo  
 Lelo ¡A Lelo!  
 ¡Lelo! ¡A!  
 Lelo ill! Lelo!  
 ¡Lelo Zarak ill!  
 Lelo! A!

(ANZIÑAKO EUSKALDUN KANTZOA.)

(BUKAERA.)

Orrela itz egin du gizon zintzo zarrak  
 —¡Ondo esana!—eranzundu batian Batzarrak.  
 —Oraiñ, esan zazkitzu zure iritziak,  
 bada zuk nai dezuna, nai degu guziak!

»¡Aditu, bada, Batzar  
 »begirungarria.  
 »Ez dute oyek merezi  
 »Kantabrin illtzia.  
 »Ez ditzatela loitu  
 »gure lur garbiak  
 »billau biotz beltz oyen  
 »ezur loigarriak!

»Dijoazela biyak  
 »Ama-lur mugatik  
 »Euskal-seme guztiak  
 »madarikaturik,

»Iñork ez deyela eman  
 »ez jan, ez edanik,  
 »ez ta itzilian ere,  
 »ez ta begirarik!

»Beren lotsa berekin  
 »izan dezatela.  
 »Iñor oyen onduan  
 »egon ez dedilla!  
 »Ikutzen duten gauza  
 »erre bereala,  
 »chakur amorratuak  
 »balira bezela!

(1) Véase pág. 1.<sup>a</sup>

»Au da nere iritzia, lagun maitatuak,  
 »orain, beti bezela Batzar jakintsuak  
 »onena deritzona erabakiko du!»  
 —Eta Batzar guziak baten esaten du:  
 «¡Guretzat artzen degu zure iritzia  
 »Euskaldun-lurretikan biyak botatzia!  
 »Orain zuk Batzarreko Zarrena bezela  
 »guk agindu deguna kunpli bereala!»

Orduan gizon zarra jachi da geldirik  
 Dola ta Zara dauden ondora.... Kendurik  
 begitikan malko bat.... ala esaten du,  
 ezpañak dardaraz ta biotza chit estu.

«Izenikan ez duan  
 »lardaskeri lotsa  
 »egin dezute biyok.  
 »¡Kanpora! ¡Kanpora!  
 »Traizioz ill dezute,  
 »billauok, gizona

»zuen Burua zana.  
 »¡Kanpora! ¡Kanpora!  
 Egiteko beltzakin  
 »zuen Ama-lurra  
 »loyez bete dezute....  
 »¡Kanpora! ¡Kanpora—

—¡Kanpora! ta ¡Kanpora! deadar batian  
 jende guziak dio bere arrabian!  
 Gero agure zarrak makurtuta arturik  
 lur puska bat eskuan, besoak alcharik  
 biyai begira  
 esaten du onela:

«Madarikatuak  
 »zerate gugatik!  
 »¡Ez deizutela eman  
 »egunak argirik,  
 »ez lorikan gabak,

»ez Jaunak pakerik,  
 »ez ere ill ta gero  
 »lurak atsedetik,  
 »otsuen ortz artian  
 »gorputzak aiturik.»

Orrela esan ta lurra, biyai arpegira  
 botatzen die esanaz.... Kanpora Kanpora!

Zarak artuaz		Jende guzia,
Dola eskutik,		lekua egiñik,
ekin diote		aldendutzen da,
irteten andik.		beren ondotik,

deadar egiñaz guziok batera

botarikan lurra,

«¡Madarikatu oyek... ¡Kanpora! ¡Kanpora!»

Ezkutatuak biyak andik ziranian  
goseaz eta lotsaz, illtzeko bidian  
lengo agure zarra lurrera jachi ta  
Lelo zanen aurrean belaunikatuta  
eman dio negarrez laztan bat kopetan.  
Gero zutik jarririk esan du onelan:

»Nere anai maiteak! Gure Lelo joan da!

»Kantabroen indarra, Erromar chimista.

»Aitor ill zanetik

»orlako semerik

»Kantabriya guztian ez da izan besterik!

»Lutoz jantzi gaitian menditar guziyak,

»puska ditzatela aitzak gure karrasiak,

»orren oroipenez

»gabaz eta egunez

»inguruak beterik guziok negarrez!

»Eta leloren illtza beti oroitzeko

»eta Zararen lotsa beñere ez azteko

»Euskaldun-errian

»bizi dan artian

»gure euskera ederra semeen artian,

»gure kanzo guziak biardute ekin

»gaurko gertaera beltz mingarriyarekin,

»naiz dala ill-kantzoa,

»naiz ta gudakoa

»naiz eztei, edo dantza, ta naiz maitezkoa!»

esanik onela,

gaur emen bezela:

»Lelo ill! Lelo!  
»Lelo! ¡A! Lelo!  
»Lelo! ¡A!  
»Lelo ill! Lelo!  
»¡Lelo Zarak ill!  
»¡Lelo! A!

Eta jende guziak ayara batian,  
belauniko jarririk Leloren aurrian,  
kanta du kantzo ori!... Eta arrezkero  
semerek semero,  
gaur arte berrogei ta amar gizaldian  
egun ta egunero  
kantatzen da gauza aren oroitahunian,  
Leloren ill kantzoa Euskaldun-mendian.

JUAN V. DE ARAQUISTAIN.

